

A07 - Nahi duzuna izango zara

Ekimen honen helburu nagusia zientzia eta teknologiako bokazioak sustatzea da. STEAM lanbide arloetan emakumearen presentzia eskasari eragiten dioten faktore ugariak kontuan hartuta, horietako batzuetan eragiteko abian jarri den proiektua da: erreferente ezak, estereotipoak, emakumeak bistaratzea.

Ikasurtea

3. DBH

4. DBH

1. Batxilergoa

2. Batxilergoa

Data

2024ko urtarrila – apirila

Lantzen diren irakasgaiak

Lanbide orientazioa

Jarduera motak

Adituarekin online hitzaldia

Adituaren bisita entitatera

Hizkuntza

Euskara/Gaztelera

Irismen geografikoa

Bizkaia

Jarduera ematen duen erakundea

HETEL – Heziketa Teknikoko

Elkartea

Curriculumaren edukiak

Proiektu honen baitan garatutako materialak lanbide orientazioa lantzeko oso erabilgarriak dira: DBH 3 eta 4 edo batxilergoko 1 eta 2 gelatan estereotipoak lantzeko kahoot bat garatu da – gelak kahoot hau egiten danean bukaeran “irudikatu zientzilari bat esperimenduaren emaitzaren bideoa ikustea gomendatzen da- Kahoot hau web orrialdean dago eta pdfan indikazioak daude. Honetaz gain, STEAM LH ikasketak egiten dauden nesken debatea beste tresna bat da, ereduak ikusteko eta beraien iritzia entzuteko.

Zer ikasten dute ikasleek?

Genero aurreiritziak uste baino baneratuagoak ditugula konturatzeko oso egokia da ikasleak gelan kahoota egitea. Estereotipoei aurre egiteko lehenengo urratsa horietaz ohartzea baita.

Honetaz gain, erreferente errealek izatea garrantzitsua da eta horiek erakusten ditugu orientazio saioetan erabilgarriak izan daitezkeen STEM ikasketak egiten dauden nesken solasaldiko bideoak.

Bukatzeko, erabakiak hartzeko momentuetan dauden ikasleentzat erabilgarriak izan daitezkeen Gomendio batzuk definitu ditugu.

Garapena

HETEL ekimena gidatzeko prest egongo zen modu presentzialean edo era autonomoan egin dezake ere ikastetxeak.

1. FASEA. Gela guztiak PDFan agertzen den Kahoot jolasa egiten du. Irakasleak Kahoota gidatzeko pdfan azalpenak izango lituzte. Frogatu nahi duzu genero aurreiritziak gelan?. Klase osoarekin egiteko aproposa DBH eta batxilergoan.

2. FASEA. Kahootaren azken galdera hau da 1983an Chambersek 4.817 haurrekin egin zuen “Zientzilari bat marraztu” esperimendua 8 urteko gela batean egingo bagenu...zein izango litzateke emaitza? Zer uste duzue?

3. FASEA: STEM ikasketak egin dituzten neskekin solasaldia ikusi bideoan (laburra eta luzea). Honetaz gain, erabakiak hartzerakoan interesgarriak izan daitezkeen Gomendioak aipatu ere bai. Orientazio saio batetan erabiltzeko dena jarraian egitea oso erabilgarria izan daiteke. Bestela saio bitan.

Baliabideak

Material guztiak beheko estekan eskuragarri daude:

- 1- Genero estereotipoak frogatzeko kahoota.
- 2- LH3ko gela batetan egindako “irudikatu zientzilari bat” esperimenduaren bideoa (kahootaren ondoren ikusteko, azken galderarekin lotuta dagoelap).
- 3- STEM Lanbide Heziketa egiten dauden neskekin grabatutako debatearen bideoa (laburra eta luzea).
- 4- Ikasketak aukeratzeko orduan kontuan hartzeko gomendioak.

Bi hizkuntzatan daude baliabideak (euskeraz eta gaztelaniaz).

Esteka: <https://www.hetel.eus/index.php/eu/nahi-duzuna-izango-zara-eu>